

Kanpora, nor?

TXILLARDEGI



«GIZARTEAREN haurrak dira eskolak». Esaldia ez da nire: Eusko Jaurlaritzaren Kontseilari izandako

J. Fishman famatuarena baizik. Hitz hauek bere irizpidea osatuz: «For Reversing Language Shift success, the school must be an integral part of the family-neighbourhood axis of child and identity-communitary formation» (azpimarraketa hau gurea izanik).

Bestela esanda: eskolak iragartzen du geroaldiko gizarte: geroako gizon-emakumeen identitate-sustirak eskolan ezartzen baitira.

Normala da espainolstek, PSOE eta Buesaren bidez eta bitartez, hordagoa alor horretan botatzea. PSOEK 'Contabria Oriental' delakoa eraiki nahi baitu Gorbea/Aralar eskualdean, eta horretarako eskola *españolola* behar baitu.

Ez da normala alderdi *abertzale* batek PSOEren eskola-projektua sustatzea. Baina normala da alderdi sasi-abertzale eta neo-karka batek, diximuluan bada ere, jakina, eskolaren arazoa Buesa eta PSOEren eskuetan jartzea. Zertan-eta, nork puskatu zuen 'tripartitua'? Nork bota zuen Oliveri euskaltzalea, Buesa euskarofobia beraren lekuan ipintzeko?

Europako hiru Estatu elebidun hautatzen baditugu, Belgika, Suomi eta Suitza demokratiakoak, hau erreparatu dugu berehala: eskola irakasi-hizkuntza, *bertako lurraldeko* dela; eta bigarren hizkuntza 8 *urteetan* sartzen dela, eta ez lehenago.

Hemen, beraz, hau Euskal Herria baldin bada, eta ez Cantabria Oriental, *euskal eskola euskarzak* eskolazten duen eskola da.

Gakoa horretan dago, jakina. Ez besterik ezertan. Buesa ongi daki, eta guk ere bai. Piondotik sekula jaitseko ez direnez... txintik ez ateratzea onena.

Nor kanpora, beraz? Buesa? Ala Buesari irispidea zabaldu ziotenak?

Mesedez eta faborez

HASIER ETXEBERRIA



INXENTE baten pare geratzeko arriskuak daukat gaurko zutabe honetan. Guztiaren errua nere lagun batek dauka, atzo bertan luzatu baitzidan, blaus!, erantzuten asmatu ez nuen galdetara: Zer egin behar diat nik *auriengo hauteskundeetan*?

Kikaran neukan kafearen aparatuan galdu nituen begiak eta pentsatzen hasi nintzen. Ezaguna da nerretzat lagun horrek politikariek daukan haserre aspaldikoa eta berehala otu zitzaidan boto zuria eman behar zuela erantzutea, edo bestela, hauteskunde egunean ohean geratu beharko lukeela, jeiki gabe. Baina bizibidez matematikaria denez, berehala aterako zidan Dont legea, abstentzioak beti talde politiko handiak indartzen dituela esanez. Galdera hain elementala, aldapa gora jartzen hasi zitzaidan supitoan.

Lagun horren beste zenbait berezitasun ikusten hasi nintzen orduan: naturalez eta bakezalea da. Ezkerreko heziketa humanista du muinetaraino sartua. Nik dakidala ez du erlijioz bizi. Berpizte ekonomiko eta soziala, heziketa eta unibertsitatearen sakoneko aldakuntzatik bakarrik etor daitekeela uste du. Ez da matxista. Aborto librea aldarikatzen du. Soldaduskarik eza. Gorria mota guztiak gorrotzen ditu, oihanean bizi direnak salbu. Berdintasun soziala du amets. Euskarzale den aldetik, abertzale ere bada. Lagunarteko du gogo. Literatura, antzerkia eta kirola ere bai. Muti normala, alegia.

Jira eta buelta, ez zitzaidan bererantz moduko ahokurrik bururatu eta orduan esan zidan, begiak neuri so: *Ba, has hadi larunbatetako hiru zutabe horretan galdeka*. Eta halaxe etorri naiz gaurkoan, ia bazterren batek arginen bat agertzen ote den nere lagun hau bezalakoentzat. Amen.

HEMEROTEKA



OROZ / DIARIO DE NAVARRA

EL MUNDO

Kontuz baina gupidarik gabe

Euskal funtzionarigoa euskalduntzeko planaren betetzeari buruzko konputu eztabaidagarriak oinarritzat hartuta, PSEk hori berraztertzeko beharra planteatu du. Horretarako erabiltzen duen arrazoa haren helburuak handinahiegia izatearen ondorioz porrot egitera kondenatuta dagoela da, baina errealitatean balantze positibo nabarmena azaltzen du une honetan. Epeak betetzeko edo baremoak egokitzeko agertzen diren zailtasun zehatzek egokitzapen eta zuzenketak onar ditzakete —etorkizunari begira da apustua— eta ez dute inolaz ere itzaltzen presarik gabe,

nahiz eta etenaldirik gabe, administrazio elebiduna izateko nahia errealitate bihurtzeko diseinuaren egokitasuna.

Hauteskundeak hurbil goteak susmagarri bihurtzen du PSOEk eragindako eztabaida hau, honen hautesleogak joera handiagoa baitauka euskararen ofizialtasuna garatzen duten neurriak bortxazko eta kostuzkotzat hartzeko. EAJk ondo egingo du, pragmatismoagatik, bere gobernuki-dearen adostasuna bilatzearikin, baina adostasuna bilatzeak ez du arriskuak jarri behar euskal herriaren eskubide baten gauzatzea. Administrazioa euskalduntzeko helburuak Legebiltzarreko gehiengoaren babesa dauka eta, beharrezkoa izanez gero, EAJk erabili egin behar du hori inolako gupidarik gabe.

EDITORIALA

Ohika

Merkatariak

Bakearen aldeko borroak, arrazoibide bakezaleak, gerra garaian edo, behintzat, horrelakorik gertatzeko arriskua zerbait erreal eta agerikoa deanean baino ez du hartzen zentzu zehatz eta eraginkorra. Kontrakoak antz handiegia dauka gastronomia elkarre batean gosearen kontrako borroka ausart, erradikal, sakrifikatu eta amorekaitz bati ekitzarekin.

Gure lurralde honetako gerra hain handia al da Euskadiko bakearen aldeko mobilizazioak hainbeste ugaltzeko? Egia esan, Argiñanok bere *Guerra a los precios* (Gerra prezioei) aldarrikapenarekin pre diezioekin adina garantzia —ez dugu uste Karlos

jatorraren asmoa denik me-trailleta hartzea elikaduz gaustarretako familiek duten aurrekontua murriztearen— kentzen ari gaitzakio gerra-ner nozioari edo, bestela, kontu hau alde guztietatik huts egiten ari da.

Gerra, zoritzarrez, aski ezagututako gauza da gizate-riaren historia osoan zehar; bere agerpen bistakoen eta mingarriena biktima kopuru handia izan ohi da: gerra guz- tiek utitutako herrien hilkor- tasun indizeak nabarmen handitu dituzte, are berorien demografiak gerra gertakari- sakoneko eragina duen bila- kaera bat erakusteraino ere. Gure Euskadi honetan ez da horrelakorik gertatzen: ETAk azken hogeita bost urteotan eragin dituen bostehun hilda- ko pasatxok hogeina hildakora ozta iristen den urteko batez bestekoa ematen du.

FRODO

ZUZENDARIARI

Osakidetza euskararen kontra

Kontuz abizen euskaldunak badituzu!

Nahiz eta abizen euskaldun eta grafia euskaldunetz idatzirik izan, *Osakidetza*k ez ditu uzten zure abizenak euskaraz erabiltzen.

Osakidetza norma gaztelera erabiltzea da, ordenadore-programak ez omen daude euskaraz erabiltzeko prestatuta (hau gezurra da eta horren frogak badaude). Ez da ulertzen Euskal Herrian ordenadoreak pre-

ez egotea abizen euskaldunak sartzeko; saiatu ziren bai Gurutzetako Ospitaleko Larialdi Saileko harrerakoak azaltzen baina ez nuen ulertzen; azkenean ulertu nuen bai, beraiei pasatutako agindua omen da abizen euskaldunak *gaztelera*z idaztea, berdin da zuk zelan idatzirik dituzun; beraz, ez da ordenadoreak ez duela onartzen, noski.

Hau da, debekatzen dizute euskaldun izatea. Bai ondo ulertu duzue *debekatu euskaldun izatea*.

Jaiotzen zarenean bueltak eta bueltak eman behar dituzte instituzio batetik bestera,


batera, bulego batetik bestera eta lortzen duzuean ezin duzu euskaraz erabili, hau zoritzarra! Bestalde jaiotzatik gazte- larazko grafiaz idatzirik baduzu suerte apur batekin urte 1/2 erdi itxaron ondoren lortzen duzu Barne Ministerioak euskaraz ipintzeko baimena ematea eta ondoren zer? *Osakidetza*k ez ditu uzten euskaraz erabiltzen.

Euskal Herria euskaldun baten alde, ez zaitez isilik gera!

NEKANE INTXAURTZA

Dima (Bizkaia)

GAIA JARRITA



Inauteriak

Hainbeste orga apaindu eder gure kaletan barrena, ta gazteria moztortuta etxetik etxe hurrena. Gazten gogoko besta da eta zaharrek maitatzen dutena, denen gainetik jarri nahi nuke Inauterriaren izena, Euskal Herrian bizirik dagon bestaritan politena.

BITTOR ELIZAGOIEN

Egunkaria

Batzorde Parkekoa: 725641 - Lege Gordailua: SS 800/90



OJDRen IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URUA

Zuzendariorde: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02

Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egofite soziala. Publizitate eta Administrazio: Antso

Jakituma, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabe: San Antonio, 20-1, ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Irtate Monastegia, 45-13 esk. / (Irrintzi dotrea) /

31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1, eskuma. / 48002 Bilbo /

☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. /

64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11